

HERNANIK kronika

2004 urtea
Abenduak 19
Igandea
Alea: 1326
www.kronika.net

MANUEL SAGARNA - MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIAREN AZKEN KONTZERTUA

"Azkeneko kontzertu hau berezia izango da, zuzendu nuen aurreneko baino hobea izango da behintzat"

- Manuel Sagarna 54 urte daramazki bandan eta gaur zuzenduko du bere azkeneko kontzertua
- Eguerdiko 12:30etan egingo zaio omenaldia Udaletxean eta kontzertua 13:00etan izango da arkupetan.


MANUEL Sagarnak 54 urte eman ditu Hernaniko Musika Bandan, 21 zuzendari lanetan. Gaur eguerdiko 13:00etan, arkupestan, izango du azkeneko kontzertua eta Udaletxean omenaldia egingo diote, 12:30ak aldera. Manuel Sagarna txikitatik hasi zen bandan saxofoa jotzen eta bailabletako piezak presztatzen hasi zen gero. Duela 21 urteko Santa Zeziliako kontzertuan zuzendu zuen Hernaniko Musika Banda aurreneko aldiz.

■ Gaurkoa duzu azkeneko kontzertua nola biziko dezu?

Bueno, ni dagoeneko ez nau ezerk emozionatzen, 54 urte bandan pasa eta gero *kalloa* egina daukat. Ez da izango beste edozein kontzertu bezela, berezia izaten da eta beti azkeneko kontzertua, baina, aurreneko baino hobea izango da, seguru. Izan ere, aurrenekoan nerbioso nerbioso nengoan. Hura ere egin genuen eta poliki-poliki jarri egiten da bat. Gainera pertsonak jakin behar izaten du noiz erretiratu, urte pare bat gehiago egongo nintzateke bandan baina orain ondo nagoela utzik det.

■ Musiko lanetan hasi zinen bandan duela 54 urte...

Gogoratzan naiz aurreneko futbol zelaia, Txantilla, egin zenean 1951garren urtean. Orduan etorri zen Real Sociedad jokatzen eta garai haritan zegoen Urumeako Banda. Bertako zuzendaria zen Don



Manuel Sagarna, Hernaniko Musika Bandako zuzendaria.

José María Goñi. Gerra bukatu ondoren osatu ziren banda batzuk eta igandetan jo egin zuten. 1951ean Txantilla inauguratu zutenean Urumeako Banda ekarri zuten eta orduan ni han nintzen. Saxofoa jotzen nuen, Don Jesus Zubimendik erakutsi zidan akademian. Eskolatik ateratzen ginen 11:30etan eta joaten ginen akademiara ikastera. Hernaniko organista zen Don Jesus Zubimendi.

■ Zuzendari lanetan nola hasi zinen?

Bandako presidentzia hartu zuen Iñaxio Iruinek eta hark ekarri zuen beste zuzenari bat:

Don Jose Antonio Ruiz Bona. Don Jose Antonio Ruiz Bona joan zen Tolosara eta orduan hemen hutsa haundiak utzi zuen. Bailableak nik eginen nien eta gero Juan Jose Iruetegoiak hartu zuen banda. Batzarra egin eta gero erabaki zuten ni jartzea subdirektore.

■ Zeintzuk dira bandan pasa dituzuen momenturik onenak?

Musika jotzen nuenean, ni gainera komodina nintzen. Baritonoa jotzen nuen, beste egin batean falta bazan altua, ba altua jotzen nuen. Tinbalak igual eta kaja ere bai. Horrela ibiltzen nintzen. □

■ Gogoratzan al duzu bandarekin gertatutako anekdotaren bat?

Egun batean Ansoarena-tarrak etorri ziren eta garai hartan jende asko etortzen zen, jendea barra-barra izaten zen, Hernanik poza eman zuen. Tilosetan udaran dena bete-betea egoten zen. Tilosak haundiak dira baina bete egiten zen. Ansorena-tarrak atera ziren, txistulariak, eta jendea txistu egiten hasi zen. Gu deskansoan ginen eta horrek amorrazio haundia eman zidan. Nere artean esaten nuen "hau ere gurea dek ba, txistua". Eta ba al dakizu zer egin nuen nik orduan? Beste tanda bat jo zuen bandak, jendeak nahi zuen *al agarrau* dantzatu eta nik orduan egin nuen tanda guztia sueltoan jo. Eta gizon batek esan zidan, Sagarna "earki izorratu iote batere ez dantzatzia".

■ Nork ordezkatuko zaitu bandan?

Zipriano Otxandorena Noblek. Oso ondo ikusten det, horrek ere badaramazki 30 bat urte. Txikitatik sartu zen bandan.

■ Nola ikusten duzu Hernaniko Musika Banda?

Banda ondo dago. Gainera

Ziprianok beste pieza batzuk

ekarri ditu eta orduan horrek ekarri dituenekin eta lehenagotik zeudenekin, errepertorioa haunditu egin da. Zipriano ni joan aurrek bi urtetan aritu da zuzendari, eta berari utzi diot nahi duena egiten. Zuzendariari utzi egin behar zaio nahi duena jotzen. □

EHNA duten herritarrei deialdia

BAI Euskal Herriari ekimenak EHNA duten herritarrei deialdia egin nahi die, gaur eguerdiko 12:30etan Biterin agertzeko. Ordu horretan *Hernanin Baietz 2000!* kanpaina aurkeztuko dute eta bestetik, EHNA duten herritar guztiek argazki bat aterako dute. □

■ FUTBOLA

Hernani 1- Intxaurreondo 2

ERREGIONALEAN Hernanik atzo 1 eta 2 galdu zuen Intxaurreondoren kontra, hala ere Hernanik klasifikazioko aurreneko postuan jarraitzen du. Zubipe busti-busti eginda zegoen eta hernaniarrek ezin izan zuten erosu futbolean jokatu. Orain deskanztoa dute urtarria arte.

Bestetik, Emakumezkoen Ligam, Hernanik gaur du partidua Amara Berriren kontra. Arratsaldeko 16:30etan Zubipen. □

Sahara laguntzeko kanpaina martxan

SAHARAKO Kanpamenduetan beharrezkoak dituzten gauzak bilten hasiko dira. Aurten, atuna, azukrea eta konpresak bilduko dituzte. Gauza horiek Biteri kultur etxeen utzi behar dira eta supermerkatuetan, ikastoletan eta kalean zehar ere kanpaina egiteko asmoa dute. Ekimena Udalak, Saharako haurrak hartzen dituzten familiak eta Eliza Ebanjelikoak bultzatzen dute. Bestetik kanpaina laguntzeko dirua eman nahi duenak kontu honetan egin dezake: 30350080940800054177. □

Ehiza txapelketa gaur

TXANTXANGORRI elkartea antolatuta ehiza txapelketako finala jokatuko da gaur. Txapelketa Epel-erreka eta Uso-errekan izango da eta gaur erabakiko da zein den txapelduna. □

Egin ezazu Olentzerorena,

- LEKEITIO: **Emperatriz Zita**

2 gau, tratamentuarekin: 107 €

- CIUDAD DE HARO Hotela:

"Ardo asteburu pasa"

2 personarentzat: 125,9 €

- KANTABRIA: 2 gau

"Palacio Guevara": 82,35 € (A/D+afaria)

"La Posada de la cuadra": 62,90 € (A/D+afaria)

"La casona de Luis": 61,15 € (M/P)

- ESKIATZERA:

Candanchu: egun 1, 38,00 €

Luz Arditzen: egun 1, 47,00 €

- TALON HOTEL: bancotel 50,00 €

eta kontsultarako beste aukera asko... 943 33 00 49 / 943 33 01 74

opari hauetk dauzkagu zakuan

badator...

ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA

ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

JANTZI DENDA

AMBOTO

ESKAINITZA

BEREZIAK

Zatoz eta zerorreki kusi

Nagusia 54 - Hernani

Anaiak 25 - Lasarte

Santo Tomasak ospatuko dira gaur Kaxkoan, Sorgintxulon eta Orkolagan

SANTO Tomasak ospatuko da gaur Hernanin zehar. Plaza Berrin, gaur eguerdiko 12:00etik aurrera pintxoak eta bokadilloak jarriko ditu salgai San Joan Konpartsak eta arratsaldeko 18:00etik 20:00etara erromeria izango da: Patxi Perez, eta Alaitz eta Maiderrekin. Alaitz eta Maiderren azkenetarikoa izango da. Bestetik, Ttarla dantza taldeak kale buelta egingo du.

Sorgintxulon eguerdian

Sorgintxulon ere izango da Santo Tomasetako festa eta txistorra pintxoak eta edaria jarriko dute hurbiltzen direnentzat. Eguerdiko 12:00etik aurrera jarriko dira auzo elkarteko lokalean.

Orkolagan egun guztiko festa

Orkolagan Anboto taberna pa-

rean egingo dute festa. Goizeko 11:00etik aurrera sargardo probatzea, txistorra eta gaztain erreak izango dira eta hau dena girotzeko musika jarriko dute. Txerri bat ere jarriko dute plazan. Arratsaldeko 18:00etan kontzertua izango da eta joko duten taldeak dira: Kalekumeak, Tuburbio eta Oztopo. Punk estiloko taldeak dira hirurak. □

Publi-erreportaia

Bankoa-Crédit Agricole etxebizitza prestamoetan Euribor + % 0,45 eskaintzera iritsi daiteke

Hernaniko Bankoa-Crédit Agricoleko zuzendari den Koldo Aldezabalek azaldu dizkigu entitatea eta maileguaren xehetasunak.

Bankoa-Crédit Agricole: Txikiaren gertutasuna eta haundiaren segurtasuna

Bankoa-Crédit Agricolek, entitate txiki baten abantailak eskaintzen dizkio bezeroari. Entitate txiki batek eskaintzen dituen gertuko harremana eta tratu familiaarra ematen dizkio. Aldi berean, Crédit Agricole bezelako entitate haundi baten barruan egoteak, entitate finantziero batek behar duen securitatea eskaintzen du.

Crédit Agricolek, Pyrénées Gascogne zonaldeko aurrezki kuxak biltzen ditu barruan, eta Bankoa ere talde horretan dago. Beraz, Bankoa-Crédit Agricole "ian eremu naturala" Ipar eta Hego Euskal Herria da, eta etorkizuneko **Euro-hiria** izango denaren barruan dago, etorkizunari aurre egiteko estrategikoki kokatua.

Etxebizitza maileguak: Bankoa-Crédit Agricolen produktu izarra

Gaur egun etxebizitza maileguek duten garrantziagatik, Bankoa-Crédit Agricolen produktu izarra bera da. Mailegua (prestamo) etxebizitzaren tasazioaren % 80koa den kasuetan, * Euribor



Koldo Aldezabal, Hernaniko Bankoa-Crédit Agricole-eko zuzendaria.

+ %0,45eko interesa es- kaintzera iristen da Bankoa- Crédit Agricole, irekierako % 0,30eko komisioarekin.

* Euriborra: Banco de Espa- ñak, zehazten duen merkatu erreferentzia da. Momentu honetan, historiako mailarik bajuenean dago, % 2,31an.

Maileguaren baldintzak:

- Tasazioaren % 80ko mailegua izatea gehienez.
- Nominaren domizilazioa.

- Etxebitza asegurua egitea.
- Bizitza asegurua egitea.
- **Gerokoak**, Prebisio planean (EPSV) 600 euroko aportazioa egitea urtean.

Hernaniko bulegoan informazioa

Bankoa-Crédit Agricolen bulegoa Urbia 12an dago Hernanin. Bertan, behar diren azalpen guztiek emango dizkizute, Etxebizitza maileguari buruz edo beste edozein produkturen inguruan.

JASOTA BEZALA

Olentzero euskararentzat dirua eskatzen dugu!

Hizkuntza eskubideak! Bai Euskarari ekimeneko kideak gara. Urtero bezala gabonak gertu ditugun honetan zure etorreraren zai irrikitan gara. Ez dakizu zenbat desio dugun pipa hortzeta duzula mendi- tik jeisten zu ikustea. Horra, horra gure Olentzero!!

Ez da pelota egiteagatik Olentzero baina jakin ezazu guretzat ez zarela urde tripaundi bat. Bueno, esan nahi genizun ere, aurten euskaran normalkuntzaren alde ahal izan dugun lan guzitia egin dugula eta hori bai Olentzero txintxo-txintxo portatu gara!

Badakizu normalean ez dugula oparirik eskatzen, nahiago izaten dugula zurekin batera kalez kale kantari eta triku- triku aritu. Sentitzen dugu

Olentzero baino aurtengoan oparia eskatu behar dizugu, ez genuen nahi baina! Zera Olentzero, Hernaniko Udalak ez digu gure lanean aritu ahal izateko adina diru laguntzik eman eta zera ba zuri oparitan eskatza buratu zaigu. Beharrezko dugu, eta benetan Olentzero txin- txo-txintxo portatu gara!

Ez dakigu Hernaniko Udalak iritziz aldatuko ote duen, horrela bada ospatuko dugu Olentzero zuk egiten duzun bezala arraultzatsuak merien- datzeko botila ardoarekin, jakina!!

Bueno Olentzero zure opari- ren zain, jaso ezazu muxu haundi-haundi bat bale!

Imanol Beroitz Insausti
Hizkuntza Eskubideak! Bai
Euskarari

ESKERTZA

Manoli Arrue Amonarriz

Abenduaren 13ean hil zen

- Goian Bego-



Haren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahai- deek oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali znutenei eta baita ere bere hiletara etorri zineten guztoi ere.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin, 2.004ko abenduaren 19an

IRAGARKI MERKEAK

Galduztakoak: Hernaniko Argazki Zaharrak zituen gutun bat galdu da, Hernaniko kaxkoan. Deitu telefono honetara: 943 55 17 45

Pisua salgai Oarso kalean. Deitu telefono honetara: 660 77 91 60

Etxebizitza salgai herritik gerto. Hiru gela, kalefazioa, lur zatia, txokoa eta aterpea. Interesatuek deitu: 635 75 86 61

Terreno rurala saldu nahi baduzu, deitu: 689 04 07 11

Pastor Aleman harra daukagu. 6 urte eta arrazakoa da. Kruzatzeko interesik daukanak. deitu: 639 76 83 57

Haurra zaintzeko pertsona behar dugu. Goizean, lan orduetan. Deitu: 659 96 25 07

Iñigo Royo Masajista, Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte- brala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

VITAL KUTXA. 70 plaza libre. Laster hasteko. Matrikula zabalik. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAUR HEZIKETA. Haurtzandegi publiko eta haur eskolatzen plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

TXOFERRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan laster hasteko. Doako informazioa. 943 43 41 27.

SUKALDE LAGUNTZAILEAK. Eskola, erresidentzia eta Eusko Jaurlaritzan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. Udaletan laster hasteko: Hernani, Usurbil, Irún, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrala, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Doako informazioa. 943 43 41 27.

PEOIAK, elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

UDALTZAINAK. 25 plaza bete behar dira: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irún, Arrasate. Doako informazioa. 943 43 41 27.

LABORATEGIA. Teknikariak, auxiliarrak. Plaza libreak Udaletan, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK. Plaza libreak, zaintzaileentzat. Postu libreak eskola publikoetan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

BASOZAINA, Udaletxe, Foru Aldundi eta Administrazio publikoan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793
- Gauet: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793

Kulunka

Aurtengo eguberrieta oparirik berezienak Euskal Herriko artisauak bihotz-bihotzez eginak

Tapizeria eta Zaharberritze Iantegia
Izpizua, 1 - Tel. 943 55 08 83
kulunka@gabiltza.org

Denda - Tailerra